



BURUKETAK II

1

Iñigoren, aitaren eta amaren adinen batura 86 urtekoa da. Iñigok 13 urte ditu, eta aitak, 38 urte. Zenbat urte ditu amak?

ERAGIKETA:

ERANTZUNA: _____ urte ditu amak.

2

Andonik 14 urte ditu. Aitak, berriz, Andoniren urteen hirukoitza du. Zenbat urte dituzte bien artean?

ERAGIKETA:

ERANTZUNA: _____ urte dituzte bien artean.

3

Aparkaleku batean, 89 auto zeuden goizean. Egunean zehar, 37 autoirten dira handik, eta 48 sartu. Zenbat auto daude aparkalekuangauean?

ERAGIKETA:

ERANTZUNA: _____ auto daude aparkalekuan.

4

Herri-lasterketa batean 615 gizonak, 170 emakumek eta haur batzuek hartu zuten parte; 840 lagunek, guztira. Zenbat haurrek hartu zuten parte lasterketan?

ERAGIKETA:

ERANTZUNA: _____ haurrek hartu zuten parte lasterketan.

5

Oskarrek album batean jaso ditu kromoak. 8 kromo jarri ditu orri bakoitzean, eta 28 orri bete ditu. Zenbat kromo ditu Oskarrek?

ERAGIKETA:

ERANTZUNA: _____ kromo ditu Oskarrek.

- 6 Luzera-jauziko proba batean, Davidek 2 m eta 8 cm-ko jauzia egin du, eta Mirenek, berriz, 1 m eta 89 cm-ko jauzia. Zenbat zentimetro luzeagoa da Daviden jauzia Mirenen jauzia baino?

ERAGIKETA:

ERANTZUNA: _____ zentimetro luzeagoa da Daviden jauzia Mirenen jauzia baino.

- 7 Belenek 6 bira eman ditu atletismopista batean. Pista 500 m luze da. Zenbat metro egin ditu guztira Belenek? Zenbat kilometro dira?

ERAGIKETA:

Idatzi zenbakia jarraian milakoan punturik jarri gabe.

ERANTZUNA:

- a) _____ metro egin ditu guztira Belenek.
b) _____ kilometro.